Egia erran, zentzu bakar batek ez luke kutsaduraren eta eragozpenen arazoa konponduko, alderantziz, larriagotuko luke: airearen kutsadura areagotua, auto galkadurengatik, soinu eragozpen hedatuak, istripu eta lehertze arriskuak, hobekuntzarik batere ez Dantxaria auzoarentzat, herri barna bitan zatitua, eta beti bibrazioak, etxeak hauskortzen dituztenak ... 2010etik urtero bizi dugu, eta gure iritzia eman diegu hautetsiei.

Gaineratzen dugu Elkartetxetik hurbil, eta erdiko aparkalekua zeharkatuz, milaka ibilgailu pasarazteak istripuak eragin lituzkeela (irailean ere, eskola sartzetik landa).

Bestalde, badakigu bi aldiz bederen herriko haur batzuk abantzu lehertuak izan direla.

Damu hartzen dugu gehien hunkituak direnekin ez dela behin ere hitzartzerik izan.

Auzo oso bat bi zentzuen artean estoka batean bezala hartua litzateke. Eta 12.000 ibilgailu proiektatuta 2029rako, 6.000 ibilgailu karrikatik eta 6.000 baratze gibeletatik: infernu bat!

Bizi-esparrua orain baino are gehiago kaltetua litzateke, eta beti arrisku gehiago osagarriarentzat: zirkulazio-proiektzioek hazkunde esponentziala adierazten dute.

Gainera, **herri barneko zentzu bakar batek ez luke konponduko Dantxaria auzoaren zirkulazioa**, harrobitik heldu diren kamioiak ere handik pasatzen baitira.

A noter que ce projet de sens unique dépend d'une procédure d'expropriation d'un propriétaire de son chemin privé (délibération prise le 1er juin 2022) qui pourrait être coûteuse pour les finances du village si on ne considère que l'aspect financier d'une telle procédure.

La crainte est grande de voir la pérennisation d'un sens unique remplacer toute réflexion autour d'une réelle déviation.

Le projet d'aménagement du bourg devait être présenté aux Ainhoar au deuxième trimestre 2023 (source : bulletin municipal distribué en février 2023). L'association Ainhoa beti souhaite que cela fasse l'objet d'une concertation.

Si des mesures de ralentissement tels que des feux tricolores, des chicanes, des ralentisseurs... étaient mises en place, cela pénaliserait les habitant.e.s au quotidien, tout comme les rétrécissements les lèsent aujourd'hui (avec tous les refus de priorité que l'on sait).

Aussi, l'étude d'aménagement du bourg ne peut être envisagée seule, le problème est à considérer dans son intégralité, avec la question de la déviation.

Enfin, rappelons qu'en 2001 les Ainhoar n'étaient pas favorables à une déviation qui serait passée par la petite chapelle et l'ont largement exprimé dans l'urne.

Et en 2018 l'association Ainhoa zaindu s'est mobilisée pour préserver l'intégralité du bourg pour qu'il ne soit pas coupé en deux par un sens unique. En parallèle une pétition à l'initiative de riverain.e.s demandait à ce que la circulation se fasse en dehors du bourg.

Le sens unique ne rendra pas le village à ses habitant.e.s.

L'avis d'Ainhoa beti : un sens unique ne ferait qu'étaler les nuisances. Il faut déporter le trafic de la RD 20 (cf. notre argumentaire ci-après).

Aipatzekoa da zentzu bakarreko proiektu hau bide pribatu baten desjabetze prozedura baten arabera (2022ko ekainaren 1eko deliberoa), herriko finantzendako garestia izan litekeena, soilik prozedura horren finantza alderdia kontuan hartzen bada.

Beldurra handia da zentzu bakar baten iraupenak egiazko desbideratzearen inguruko gogoeta oro ordeztuko ote duen.

Herri barnaren antolaketa proiektua ainhoarrei aurkeztua izan behar zen 2023ko bigarren hiruhilekoan (iturria: 2023ko otsailean banatua izan zen herriko buletina). Ainhoa beti elkarteak horren inguruan hitzartze bat izan dadin nahi luke.

Ixtitze neurriak ezarriko balira, hala nola, zirkulazio argiak, sigi-sagak, motelgailuak..., horrek herritarrek kaltetuko lituzke beren eguneroko bizian, gaur egun hertsitzeek trabatzen duten bezala (ezagutzen ditugun lehentasun ukapen guztiekin).


Beraz, herri barnaren antolaketaren ikerketa ez da bakarrik pentsatua izan behar, arazoa bere osotasunean kontsideratu behar da, desbideratzearen arazoa barne.

Azkenik, oroitaraz dezagun 2001ean ainhoarrak ez zirela kapera ttikitik iraganen zen desbideratze baten alde, eta herriko bozetan adierazi zutela hein handi batean.

Eta 2018an, Ainhoa zaindu elkarteak mobilizatu zen herri osoa babesteko, zentzu bakar batez erdibitua izan ez dadin. Aldi berean, herritar batzuek abiatu petizio batek eskatzen zuen trafikoa herritik kanpo pasaraztea.

Zentzu bakarrak ez die herria herritarrei itzuliko.

Ainhoa Betiren iritzia: zentzu bakarrak eragozpenak hedatu besterik ez luke egingo. RD20aren trafikoa desbideratu behar da (ikus urrunago gure proposamena).



**Projet Département : nouvelle route fuseau Ouest
Departamenduaren proiektua: bide berria Mendebaldetik**

**Projet mairie : sens unique
Herriko Etxearen proiektua:
zentzu bakarra**

**Proposition Ainhoa beti :
RD 305 + RD 4 route du barrage
(déviation existante)
Ainhoa Betiren proposamena:
RD 305 + RD 4 urtegiko bidea
(dagoen desbideratzea)**

**Barrière filtrante
Hesi iragazlea**

Les différents projets :

- De l'entrée Nord du village (tourne à gauche) jusqu'à la frontière :*
- ~ 3,2 km par la RD 20, en traversant le village et Dantxaria. C'est le projet communal avec l'ajout du sens unique au bourg.
- ~ 4,2 km pour le projet du Département (projet à l'arrêt).
- ~ 7,2 km pour le projet de l'association, présenté ci-après.

Notre proposition, le choix d'un village qui respire

Sur le sujet de la déviation, nous avons présenté notre projet à la commune, au Département ainsi qu'au sous-Préfet.

Le constat d'une circulation disproportionnée est partagé, due essentiellement aux véhicules qui ne font que traverser Ainhoa pour aller à Dantxarinea.

Proiektuak:

- Herriaren ipar sarreratik (ezkerralderantz itzul) mugaraino :*
- ~ 3,2 km RD20tik, herri barna eta Dantxaria trebeskatuz. Herriko Etxearen proiektua da, zentzu bakarrarekin zentroan.
- ~ 4,2 km Departamenduaren proiektuarentzat (proiektua gelditua da).
- ~ 7,2 km elkartearen proposamenarentzat, ondotik aurkeztua.

Gure proposamena, hats hartzen duen herri baten hautua

Desbideratzeari buruz, gure proiektua aurkeztu diegu Herriko Etxeari, Departamenduari eta suprefetari.

Neurriz kanpoko zirkulazioaren egiaztapena partekatua da, gehien bat Ainhoatik Dantxarineara joateko baizik pasatzen ez diren ibilgailuengatik.



Par le passé des aménagements ont été mis en place pour tenter de dévier ce flux. Il y a eu l'installation de rétrécissements aux deux entrées du bourg pour ralentir voire dissuader les automobilistes de traverser le bourg. Cette mesure s'est avérée inefficace et pénalise au quotidien les habitants.e.s, avec tous les refus de priorité que l'on sait.

Il y a eu également la création d'une bretelle en 2012 pour renvoyer les voitures vers le barrage, et des panneaux incitatifs. Malheureusement ces mesures n'ont pas porté leurs fruits. Aujourd'hui la municipalité envisage de pérenniser un sens unique qui maintiendrait la circulation au bourg et sur la RD 20 jusqu'à Dantxaria (voir la partie précédente).

Après y avoir beaucoup réfléchi, nous pensons que la seule solution est d'**enlever ce trafic**.

Comment ? L'utilisation de la route existante via le barrage (RD 305 + RD 4) nous semble être la meilleure alternative. C'est la déviation officielle depuis 2012 (article Sud Ouest du 21/08/2012) et c'est la route obligatoire pour les camions. Si les camions peuvent se croiser, les voitures également (2 habitations à proximité immédiate de la route existante d'après l'étude du Département).

Ce serait l'axe transfrontalier. Cette solution est rapidement opérationnelle et épargnerait également le quartier de Dantxaria.

Mettre en place une déviation par la route du barrage est possible. Mais il faut être lucide : **des aménagements techniques sur Ainhoa doivent obliger les voitures et motos à emprunter la déviation. Sans cela, aucune solution ne portera ses fruits** : la déviation ne serait pas empruntée (tout comme la nouvelle route ne l'aurait pas été) et les nuisances iraient crescendo.

Iraganean, trafikoko horren desbideratzeko antolaketak egin izan dira. Herriko bi sarreretan hertsitzeak ezarriak izan ziren, auto gidariei herria zeharkatzea gibelarazteko. Neurri hau ez da eraginkorra izan eta eguneroko bizian herritarrak zigortzen ditu, jakina den lehentasun ukapen guzietan.

Ingurabide baten sortzea ere izan da 2012an, autoak urtegitara igortzeko, eta bide seinaleak. Zoritxarrez, neurri horiek ez dira emankorrak izan. Gaur egun, Herriko Etxea zentzu bakar baten irauaraztea pentsatzen ari da, herri barnean eta RD20tik Dantxariaraino zirkulazioa mantenduko lukeena (ikus aitzineko zatia).

Pentsaketa aritu ondoren, uste dugu aterabide bakarra **trafikoko hori kentzea** dela.

Nola? Urtegitik pasatzen den errepidearen erabiltzea (RD305 + RD4) alternatiba hoberena iruditzen zaigu. 2012 urteaz geroztik desbideratze ofiziala da (2012/08/21eko Sud Ouest artikulua) eta kamioientzat derrigorrezko bidea da. Kamioiak gurutzatzen ahal badira, autoak ere bai (2 etxebizitza, dagoen errepidearen bazterrean, Departamenduaren ikerketaren arabera).

Mugaz gaindiko ardatza litzateke. Aterabide hori fite martxan ezartzen ahal da eta Dantxaria auzoa ere libratuko luke.

Posible da desbideraketa bat ezartzea urtegitiko bidetik. Baina buruargi izan behar da: **Ainhoan, antolaketa teknikoek autoak eta motoak desbideratzea hartzerantz behartu behar dituzte**. Hori gabe, ez dago nihungo aterabiderik: desbideratzea ez litzateke hartuko (ez eta bide berria ere) eta eragozpenak emendatuz joango lirateke.

Précisons que nombreux sont les automobilistes qui font des kilomètres pour se rendre à Dantxarinea, ils ne sont pas à 4 km près.

Nous pensons que le meilleur moyen d'**enlever ce flux traversant** serait de rendre impossible l'accès à Dantxarinea par Ainhoa pour les non villageois.es. Aussi les véhicules seraient obligés de prendre la déviation par le barrage.

Concrètement ce pourrait être un système de barrière filtrante après le bourg et avant Dantxaria, au niveau de l'intersection avec la route de la carrière par exemple (la première idée aurait été de couper après le quartier de Dantxaria mais il est trop urbanisé et trop proche des ventas). Les petites routes également devraient avoir leurs barrières filtrantes pour éviter tout report du trafic. La situation que nous vivons est exceptionnelle, mais notre proposition, bien qu'audacieuse, n'est pas si exceptionnelle.

En effet il existe des communes où il est impossible aux personnes non résidentes ou non autorisées d'accéder en voiture (Minerve, St Malo, Bermeo, Gavarnie, Collonges-la-Rouge...)

Ce que nous proposons serait moins contraignant pour Ainhoa.

Tout un chacun pourrait accéder au village mais seules les personnes autorisées (liste à définir), notamment les personnes qui résident à Ainhoa et qui pâtissent de la situation, les piétons, les cyclistes pourraient rejoindre Dantxaria par la RD 20.

Cet aménagement est possible sur une route devenue communale ou bien en accord avec le Département.

Note: cette route serait également devenue communale si la nouvelle route avait été construite (source: concertation 2019 du Département).

Erran behar da ere auto-gidari anitzek kilometro andana bat egiten dituztela Dantxarinea joateko, 4 kilometro gehiago egin ditzazkete.

Gure ustez, **herria trebeskatzen duen trafiko hori kentzeko** manerarik hoberena Ainhoatik Dantxarinea joateko sarbidea moztea litzateke, herrikoak ez direnentzat. Beraz, ibilgailuek urtegiko desbideratzea hartu beharko lukete.

Zehazki, herri barna eta Dantxaria artean iragazteko hesi sistema bat ezar liteke, harrobiaren bidegurutzearen heinean adibidez (lehen ideia Dantxaria auzoaren ondotik moztea zen, baina urbanizatuegia eta bentetatik hurbilegi da). Bide ttikiek ere beren hesi iragazleak izan beharko lituzkete trafikoa handik ez pasatzeko. Bizi dugun egoera berezia da, baina gure proposamena, ausarta izan arren, ez da hain apartekoa.

Izan ere, herri batzuetan, egoiliarrak ez direnak edo baimenik ez dutenak ezin dira autoz sartu (Minerve, Saint-Malo, Bermeo, Gavarnie, Collonges-la-Rouge...). Proposatzen duguna ez litzateke hain hertsagarria Ainhoarentzat.

Nornahi sar litaik herrian, baina soilik baimendutako pertsonak (zerrenda zehaztu behar da), bereziki Ainhoan bizi direnak eta egoera horretaz sufritzen dutenak, oinezkoak, bizikletak Dantxariara RD20aren bidez heldu litezke.

Antolaketa hori posible da komunala bilakatua den bide batean edo Departamenduarekin adosturik.

Oharra: Ainhoa zeharkatzen duen bidea komunala bihurtuko zen, Mentaberritik pasatu behar zen bide berria egin bazen (iturria: departamenduaren 2019ko hitzartzea).

Techniquement il pourrait s'agir de barrières filtrantes qui s'ouvrent avec un passe pour les véhicules prioritaires et à la lecture de la plaque d'immatriculation pour les véhicules autorisés dont la liste serait à définir, par exemple : les résident.e.s, contribuables, soignant.e.s, services d'aides à domicile ou de livraison de repas, habitant.e.s de Zugarramurdi et Urdazubi selon les besoins, etc. L'idée étant de ne pas perturber la vie des habitant.e.s et l'économie locale (ceux qui ont pour but Dantxarinea ne s'arrêtent pas à Ainhoa).

Il faut adapter le choix de déviation à la vie du village et non pas l'inverse.

Et des sens interdits pourraient rapidement être posés en attendant l'installation de barrières.

En bonus, des possibilités de stationnement pourraient être envisagées en bord de la route devenue communale, de la sortie Sud du village jusqu'à la barrière.

En cas d'inondation de la route du barrage, la traversée d'Ainhoa pourrait bien sûr être rendue possible ponctuellement (mieux vaut avoir à supporter le trafic un jour par an que 365 jours !).

Pour mémoire, la route du barrage est la déviation officielle depuis 11 ans et la route obligatoire pour les camions depuis 17 ans, son caractère inondable ne représente pas un frein.

Sur cette déviation, comme vous le savez, quelques travaux seraient à prévoir au niveau des ponts (mais ils sont déjà en projet).

Et nous pensons que des aménagements devraient être envisagés de type murs anti-bruit, plantations de barrières végétales pour épargner au maximum les quelques habitations touchées le long de la déviation, sans oublier celles situées en amont (de Pinodieta à l'entrée Nord du village), et aussi des écoponts pour les espèces animales, etc.

Teknikoki, hesi iragazleak izan litezke, lehentasunezko ibilgailuendako karta batekin irekitzen direnak, eta matrikula irakurriz, zerrenda zehaztu bateko ibilgailu baimenduentzat, adibidez: egoiliarak, zergadunak, erizain eta medikuak, etxez etxeko laguntzaileak edo otorduak emateko zerbitzuak, zugaramurdiar eta urdazubiar beharren arabera, etab. Ideia da biztanleen bizitza eta tokiko ekonomia ez nahastea (Dantxarinearera doaztenak ez dira Ainhoan gelditzen).

Desbideratze hautua herriko bizimoduari egokitu behar zaio, eta ez alderantziz.

Eta norabide debekatuak errexki ezar litezke hesiak ezarri arte.

Gehigarri gisa, aparkatzeko aukerak proposatuak izan litezke komunala bihurtuko zen bidearen bazterrean, hegoaldeko irteeratik hesiraino.

Urtegiko errepidea urez estaltzen balitz, Ainhoako zeharkatzea puntualki posible izan liteke (hobe da trafikoa urtean egun batez jasan behar izatea 365 egun baino!).

Oroitazteko, badu 11 urte urtegiko errepidea desbideraketa ofiziala dela, eta badu 17 urte kamioientzat derrigorrezko bidea dela. Uholde arriskua ez da traba bat.

Desbideratze horretan, dakizuen bezala, obra batzuk aurreikusi behar lirateke zubien heinean (baina jadanik egitasmotan dira).

Eta gure ustez, harrabotsaren aurkako murrak edo landare hesien landatzeak bezalako antolamenduak egin beharko lirateke, desbideraketa bide bazterretik hurbil diren bizitegiak ahal bezainbat babesteko, aitzinago direnak ahantzi gabe (Pinodietatik Ipar sarreraraino), eta baita ekozubiak ere animalia espezieentzat, etab.

Le GPS pourra se mettre à jour, et toutes les maisons du village seront accessibles par un côté ou par l'autre.

Cette solution nous semble la plus sobre écologiquement et économiquement.

Nous estimons que la circulation que nous subissons est évitable. Il est tout simplement possible de transférer le trafic et ses nuisances sans attendre.

A l'avenir, quel que soit l'itinéraire emprunté par ce flux traversant, des réflexions doivent être engagées en vue de réduire le trafic. Nous avons quelques idées.

Nous avons d'ailleurs demandé un rendez-vous à la Communauté d'Agglomération Pays Basque au vu de ses nombreuses compétences (mobilités, transfrontalier, etc.)

En résumé l'association pense que la nouvelle route n'aurait pas été empruntée. En effet une nouvelle route n'aurait pas eu d'utilité : prendre la route du barrage rallonge au maximum de 2mn40 par rapport à la RD 20 qui traverse le bourg. Lorsque la circulation n'est pas fluide au village, on perd du temps à le traverser (on nous a rapporté des temps de traversée de 10 et 15 mn cet été !).

L'écart aurait été moindre entre la nouvelle route et la route du barrage : gain d'1 mn30 ?

Et le projet de sens unique menace tout autant notre santé et notre sécurité que le statu quo.

**Quel intérêt pour Ainhoa de supporter ce flux traversant ?
Doit-on voir nos vies raccourcies pour que quelques-uns gagnent 2 minutes ?**

Nous devons agir pour préserver notre santé et la qualité de vie, mais également pour que se promener à Ainhoa soit un plaisir. Pour que les Ainhoar se réapproprient leurs lieux de vie tels que la rue, le fronton, le lavoir, ...

GPSa eguneratu ahal izango da, eta herriko etxe guzietaraino sarbide bat izanen da alde batetik edo bestetik.

Aterabide hau ingurumena eta ekonomia aldetik zuhurrena iruditzen zaigu.

Uste dugu jasaten dugun zirkulazioa saihesten ahal dela. Posible da, besterik gabe, trafikoa eta haren eragozpenak lekualdatzea goaitatu gabe.

Etorkizunean, auto-uholde zeharkatzaile horrek hartzen duen ibilbidea edozein dela ere, gogoeta batzuk hasi behar dira trafikoa murrizteko. Ideiak baditugu.

Bestalde, Euskal Elkargoari hitzordu bat galdegin diogu, bere eskumen anitzak ikusirik (mobilizazioak, mugaz gaindikoak, etab.)

Laburbilduz, elkarteak uste du bide berria ez zela hartua izanen. Izan ere, bide berri batek ez zukeen baliagarritasunik ukanen: urtegiko errepidea hartzeak gehienez ere 2mn40 luzatzen du herria zeharkatzen duen RD20a hartzeak baino. Herri barnean, trafikoa arina ez delarik, herria zeharkatzeak denbora galarazten du (10 eta 15 mn arteko iraupena aipatu digute uda honetan herriaren zeharkatzeko!)

Errepide berriaren eta urtegiko bidearen arteko aldea oraino ttikiagoa izanen zen: 1mn30-ko irabazia?

Eta zentzu bakarreko proiektuak gure osagarria eta segurtasuna mehatxatzen ditu, statu quo-ak bezala.

**Ainhoako herriarentzat zer interes du trafiko zeharkatzaile horrek?
Ikusi behar al ditugu gure bizitzak laburtuak batzuek bi minutu irabaz ditzaten?**

Gure osagarria eta bizi kalitatea zaindu behar ditugu, baina baita ere Ainhoan ibiltzea plazer bat izan dadin. Ainhoarrek beren bizilekuak berreskura ditzaten, hala nola karrika, plaza, alhaxurruta,...

A l'heure où il nous faut préserver la santé, les terres, la biodiversité, les milieux et les ressources, la construction d'une nouvelle route, qui n'aurait pas fait gagner de temps, et qui n'aurait pas été empruntée ne nous paraissait pas être un projet adapté (projet mis à l'arrêt en juillet 2023).

En conclusion, nous pensons que la pérennisation d'un sens unique étalerait les nuisances liées au trafic grandissant, au détriment de notre santé et de notre sécurité.

Ce trafic traversant peut être évité : utilisons la déviation par la route du barrage. N'attendons plus !


N'hésitez pas à nous soumettre vos idées, il existe peut-être une solution à construire ensemble. L'objectif étant de préserver la santé et la sécurité, dans l'intérêt général bien sûr.

Osagarria, lurrak, biodibertsitatea, inguruneak eta baliabideak zaindu behar ditugun garai huntan, errepide berri baten eraikitzea, denbora aurrezten ez duena, ez dena baliatuko eta ondorioz urtegiko bidea hetsiko duena, ez zaigu proiektu egokia iruditzen (2023ko uztailean gelditua izan den proiektua).


Ondorioz, uste dugu zentzu bakar baten egonkortzeak, handitzen ari den trafikoak sortzen dituen eragozpenak hedatuko lituzkeela, gure osagarriaren eta segurtasunaren kaltetan. Trafiko hori saihets daiteke: desbideraketa urtegiko bidetik egin dezagun. Ez dezagun gehiago goaita!

Ez duda zuen ideien aipatzeko gurekin, agian elkarrekin eraiki daitekeen aterabide bat bada. Helburua osagarria eta segurtasuna zaintzea da, denen onetan bistan dena.

Et si vous êtes en accord avec notre proposition, pensez à signer notre pétition. Elle vise à faire connaître notre projet et à ouvrir le débat.



<https://chnng.it/K2RnzBzCgW>



Gure proposamenarekin bat egiten baduzu, zabaldu dugun eskaera izenpetu ezazu. Gure proiektuaren ezagutaraztea eta eztabaidaren sortzea du xede.

Bon à savoir



Une étude écologique (faune et flore sur 4 saisons) a été réalisée par le Département sur le fuseau Ouest. Il nous paraît intéressant qu'elle soit mise à disposition du public, afin que cette connaissance soit accessible à chaque personne intéressée par la biodiversité environnante et que cette étude n'ait pas été faite en vain.

Comme indiqué, nous souhaitons que l'aménagement du bourg soit soumis à concertation ou enquête publique, et que ce soit le cas pour tout aménagement, afin que chacun puisse partager ses idées.

Enfin, du côté du projet de nouvelle route, une nouvelle concertation devait être organisée par le Département fin 2023/début 2024 sur le choix du tracé (affinage du tracé à l'intérieur du fuseau Ouest). Etant donnée la mise à l'arrêt du projet, cela ne devrait pas avoir lieu.

A l'occasion de concertations, il est important que chacun.e fasse entendre sa voix.

On da jakitea



Departamenduak ikerketa ekologiko bat egin du (fauna eta flora 4 sasoinetan) mendebaldeko ardatzari buruz. Interesgarria irudituko litzaiguke jendearen eskura jartzea, ezagutza hori inguruko bioaniztasunean interesatua den ororentzat eskuragarri izan dadin eta ikerketa hori alferrik egina izan ez dadin.

Adierazi dugun bezala, herri barnaren antolaketa hitzarmen edo ikerketa publiko baten pean ezartzea nahi genuke, eta hala izan dadin edozein antolaketarentzat, bakoitzak bere ideiak parteka ditzan.

Azkenik, errepide berriaren proiektuaren aldetik, 2023 bukaera/2024 hastapeneko Departamenduak beste hitzartze bat antolatu behar zuen, ibilbidearen hautuari buruz (ibilbidearen fintzea mendebaldeko ardatzaren barnean). Proiektua gelditu baita, ez litzateke hitzartzerik izan behar.

Hitzartzeen kari, garrantzitsua da bere ahotsa entzunaraztea.



MOBILISONS-NOUS POUR NOTRE VILLAGE ! TOUTES ET TOUS CONCERNE.E.S !



MOBILIZA GAITEZEN GURE HERRIAREN ALDE ! DENAK HUNKITUAK GARA !

Contactez-nous

**Pour de plus amples informations
ou pour nous rejoindre, n'hésitez
pas à contacter l'association**

(+bulletins d'adhésion ci-joints).
Nous avons de nombreux documents
sources et pouvons approfondir ou
débatte avec vous.

 ainhoabeti.eh@gmail.com

La Présidente de l'association est
Nekane Daguerre.
Actualité à suivre sur Facebook ou en
nous contactant.

**Avec le soutien des associations
le CADE, Bizi & Respire**

Harremanetan sartu

**Informazio gehiagorentzat edo
gurekin bat egiteko, ez duda eta
elkartearekin harremanetan sartu.**

(+ bazkide orria loturik)
Dokumentu anitz badugu eta zuekin
gaia sakontzen edo eztabaidatzen ahal
dugu.

 ainhoabeti.eh@gmail.com

Elkarteburua Nekane Daguerre da.
Gure berrien hartzeko, segi gaitzazu
Facebooken edo zuzenean
harremanetan sar zaitez gurekin.

**Elkarte hauen sustengua badugu:
le CADE, Bizi & Respire**